

Urtero egin ohi denez jai nagusia dute Zumarragan Santa Lutzi egunean

A.O. / DONOSTIA



Santa Lutzi jostunen eguna izateaz gain, feria nagusia ospatzen dute Zumarragan. Ohiturari eutsiz, egun honen inguruan ekintza ugari izango dira gaurtik igandera arte.

Gaur, Santa Lutzi eguna, zaldi, asto eta beste zenbait abere nahiz nekazal tresnaren feria ikusgai izango da herriko plazan goizeko zortietatik aurrera, eta goizeko bederatzitik t'erdietatik hasita Euskadi enparantzan. Kanoi, baserriko oilasko, erretil sagar, fruta eta barazkien urteroko lehiaketa egingo da. Horretaz gain, Euskal Herriko zenbait artisauen lanen erakusketa ikusteko parada izango da leku berean. Zelai Arizti ikastetxean, aldiz, Jose Maria Buska Isusiren omenezko VIII buzkantza lehiaketa izango da eta Loiolako Inigoren kalean, berriz, lasterketako zaldien erakusketa.

Goizeko hamarretan dultzainero eta trikitilariak diana joko dute elka-

rekin. Dultzaina jotzen Tolosa eta Urretxukoak ibiliko dira eta trikitian Zendoia eta Egañazpi, eta Zumarragako trikitilari gazteak. Hamaika t'erdietan kalejira egingo dute Zumarragako Musika bandak eta 'Aintzinako Ama' txistulari bandak.

Goizeko ekitaldiekin amaitzeko, ferian parte hartuko duten abere eta gainontzeko lehiaketen sari banaketa egingo da arratsaldeko ordu bata t'erdietan, udaletxeko ekintza aretoan. Sari banaketa ostean etenalditxo bat egingo da, eta herriar zein kanpotarrak bazkaltzera joango dira. Santa Lutzi eguneko arratsaldeko ekitaldiei seitan emango zaie hasiera idi probekin. Gaueko hamar t'erdietatik aurrera bertsolarien jaialdi oparoa izango da Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikanorenkin. Zelai Arizti zinetokian ikusi eta entzun ahal izango dira hauek. Amaitzeko, aldiz, 'Los Incansables' txaranga arituko da herriko giroa alaituz goizaldeko ordu bata t'erdia arte.

ALFONSO IRIGOIEN

«Euskalkiak bizirik badaude biziko da euskara, bestela bereak egin du»

Bonaparte Printzearen mendeurrena dela eta, Deustuko Unibertsitatean 'Bizkaieraren lekua gaur' mahaingurua izan zen atzo. Bertan, administrazio, komunikabide, irakaskuntza eta abarreko ordezkariak Bizkai-

ko euskararen lehena, oraina eta geroa aztertutuz. Mahainguruan parte hartu zuen Alfonso Irigoien Deustuko Unibertsitateko Hizkuntzalaritzako irakaslearekin bildu ginen bizkaierari buruz hitzegiteko.

G.A. / BILBO

EGUNKARIA.— Zein da gaur egun bizkaierak bizi duen egoera?

ALFONSO IRIGOIEN.— Bizkaiko euskara Gipuzkoako parte batean ere egiten da. Bizkaian badaude leku batzuk, esaterako Lea-Artibai, mundu guztiak euskaraz besterik ez duela egiten. Eta euskaraz hitzegiten baldin bada, esan nahi da hitzegiten duela. Ondarroan, Lekeitio, Aulestia edo Markinan euskara oso bizirik dago, eta sarri askotan Gipuzkoako tokietan baino sendago.

Gipuzkoan ere, segun non egin egiten da euskara. Bizkaian bezala, esaterako Enkarterrietara bazoaz han erdara egiten da.

EGUNKARIA.— Euskara batuak ez lukeela bizkaieraren arerioa izan beharko esan ohi duzu, baina ba al da?

IRIGOIEN.— Ez dakit, batzuek esaten dute baietz, eta beharbada batzuen buruan holako joerak izan ohi dira. Baina nik uste dut, planteamentuak gaizki daukela.

Batua eta euskalkien artean harreman, elkarren arteko dialektika batek izan behar du


Nire ustez, Bizkaiko euskara edo beste euskalkiak bizi ez baldin badira euskara batua ere

ez da biziko. Euskara batuaren eta euskalkien artean harreman batek egon behar du eta elkarren arteko dialektika bat. Euskalkiak bizirik baldin badaude, behar den bezala, horrek euskara batua ere aberastuko du. Hau da, euskara biziko da euskalkiak bizi direlako. Euskara batuak eragina izango du euskalkietan eta euskalkiek era berean batuan, eta hori ez bada hola, euskararen egin du.

EGUNKARIA.— Euskara batua eta euskalkien arteko beharrezko dialektika hori nola bultzat daiteke?

IRIGOIEN.— Bueno, ba, ez dakit. Ez da erraza horri erantzutea. Baina, nik uste dut horrek eskolatik hasi behar lukeela. Baina, hori ez dago horrela planteaturik gure artean.

Orain 40 urte inguru, ni Ekin-



Euskara batua ere aberastuko da euskalkiekin.

ekoa nintzenean, politikako gauza klandestinoak irakurri behar izan nituen zerbait idazteko. Eta enteratu nintzen Suitzan, orduan alemanian ikasten zutela etxekoa, hamar hamaika urtera arte eta gero hasten zirela aleman literarioa ikasten. Alemanian, normalki, bakoitzak etxekoa egiten du alderdi batetik, baina badaki liteariora ere. Dialektika hori Alemanian ere bada. Eta zergatik ez gurean? Gurean existitu behar luke, bide normaletik bagenbiltz.

Hori nola konpondu ez dakit, urrats asko eman dira irakaskuntzan, eta ez beti zuzenak. Eta oker hasten direnak zuzentzen oso zaila da.

EGUNKARIA.— Bizkaiera hiz-

kuntz arlote edo bigarren mailakotzat jo izan da. Hori hola al da?

IRIGOIEN.— Nik hori ez dut sentitu sekula. Norbaitek hori sentitu izan badu bere kontua da. Ez dakit, Bizkaiko euskaraz idatzi izan da, Txomin Agirrek idatzi izan ditu lanak, Peru Abarka ere Bizkaiko euskaraz idatzi zen eta gerra aurrean asko idazten Bizkaiko euskaraz. Bada literatu bat, arlotea zergatik?

Bizkaiko zenbait aldetan euskara oso bizirik dago, Gipuzkoako tokietan baino sendago

SOSLAIA

Etorkizun iluna

Bizkaieraren lekua gaur' mahainguruan parte hartu zuten sei pertsonaia bat etorri ziren euskararen etorkizuna iluna dela adierazteko orduan. Roman Berriozabal-en hitzetan, «bizkaitarrok burua jaso eta tente mantendu behar dugu. Besteak beste euskaldunak gurea adierazi behar dugu». Laura Uruburruk bizkaierak gizartearen sentsibilizazioa behar duela azpimarratu zuen. Euskararen etorkizuna argi ikusten ez duen Abel Muniategiaren arabera, Bizkaiko euskararen etorkizuna are ilunagoa da, «boluntarismo hutsa nahikoa ez delako». Igone Etxebarriaren hitzetan, «euskararen erabilera arlo batzuetan zabaltzen ez bada, euskararen geroa are txarragoa izango da». Joseba Lakarraren arabera, «bizkaieraren etorkizuna bat axola, euskararena ziurtatzen bada». Irigorioren hitzetan, azkenik, «euskara biziko da, euskalkiak bizi direlako».

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Juana Maguregi Lezama, 88 urte.
Juan Etxebarria Orue, 65 urte.
Catalina Garces Olalde, 71 urte.
Juan Luis Uriarte Valdivielso, 43 urte.

Manuel Pena Varela, 62 urte.
Angel Ahedo Beaskoetxea, 66 urte.
Dominga Bilbao Goiri, 96 urte.

ALGORTA

Rosario Renteria Urkiza, 64 urte.

AREETA

Marcial Iribarnegarai Garcia-Velarde, 83 urte.

BARAKALDO

Leonor Marigomez Gredilla, 67 urte.

DURANGO

Basilio Tellitu Belaustegigoitia, 81 urte.

Ricardo Uribebarrea Bilbao, 76 urte.

FRUIZ

Juan Antonio Garai Madariaga, 88 urte.

GALDAKAO

Peli Usabel Abasolo, 71 urte.

MUNGIA

Lorenza Isasi Urrutia, 86 urte.

SANTURTZI

Iñaki Fernandez Ortiz, 24 urte.

SESTAO

Teodoro Berezibar Aiarzaguena, 90 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Gregorio Martinez Iglesias, 73 urte.
Maria Concepcion Azurmendi Dorronsoro, 79 urte.

Juana Letamendi Albisu, 84 urte.

Juan Aizpurua Azketa, 73 urte.

Pedro Fernandez-Miranda Artola.

America Carballo Guimerans, 80 urte.

Dario Gonzalez Fernandez, 78 urte.

ANTZUOLA

Jose Kruz Kortabarria Laskurain, 83 urte.

ASTIGARRAGA

Juan Oiarzabal NARBARTe, 64 urte.

BERGARA

Felisa Auzmendi Goia.

ERRETERIA

Faustina Perez Garcia, 80 urte.

Agustina Llano Delgado, 84 urte.

HERNANI

Marisol Sanz Lopez, 61 urte.

Patrocino Agirre Zapiain, 75 urte.

IRUN

Ramon Requejo Cominges, 89 urte.

LEGAZPI

Sara Iturbe Garate, 77 urte.

ONATI

Francisco Ugarte San Vicente, 69 urte.

ORDIZIA

Josefa Luluaga Hermina.

TOLOSA

Miguel Errondosoro Otamendi, 85 urte.

USURBIL

Calixto Iraola Sarasti, 93 urte.

ZEGAMA

Esteban Gorrotxategi Mendizabal, 70 urte.

NAFARROA

IRUÑA

Trinidad Eugi Garro, 96 urte.

Francisca Irureta Mariezkurrena, 91 urte.

Candida Bayo Izquierdo, 62 urte.

Petra Alvarez Ferrero, 76 urte.

Celia Casales Marin, 66 urte.

Francisco Arze Ganboa, 85 urte.

BARGOTA

Martin Hernandez Acedo.

BERRIOZAR

Eugenio Barrientos Goñi, 45 urte.

ELIZONDO

Leonor Ezponda Gartxitorena, 89 urte.

LEKUNBERRI

Jesus Bermejo Perez, 72 urte.

TAFALLA

Antonio Cajal Tiebas, 79 urte.

TUTERA

Isidro Marin Arnedo.

VALTIERRA

Angeles Catalan Igea, 66 urte.

ZANGOZA

Genaro Xabier Vallejos Jabala, 94 urte.

LAPURDI

BAIONA

Roger Lafitte, 80 urte.

ANGELU

Suzane Lavigne, 65 urte.

NAFARROA

BEHEREA

AIHERRA

Pascal Saint Jean, 87 urte.

AMENDUXE

Martin Arkundo.

BUNUZE

Bonifacio Habans, 87 urte.